

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AIARAKO UDALA

#### **Hasierako onespena ematea udalak babesturiko ondasunen katalogoaren, udalerriko arau subsidiarioetan jasotakoaren, aldaketari**

Aiarako korporazioak, 2012ko ekainaren 15ean balio osoz egindako ohiko bilkuran, erabaki hau hartu zuen:

Lehenengoa. Udal katalogoa aldatzeko espedienteari hasiera ematea, aipatutako Cerrajería Jauregiko eraikin isolatuak eta osagarriak katalogo horretatik kanpo uzteko, arkitektura- edo eraikuntza-balio nabarmengarririk gabeko eraikin sinpleak direla ulertuta, gainera kontserbazio-egoera txarrean daudenak, eta berrerabiltzeko ere ez direnak, errepideen sektoreko araudiak haien zaharberritzea mugatzen duelako.

Bigarrena. Espedientea jendaurrean jartzea eta interesdunei entzunaldia ematea hogeita hamar egun balioduneko epean, ALHAOn iragarki bat argitaratuz eta jabeari zuzenean jakinaraziz, erreklamazioak edo iradokizunak aurkez ditzan. Eta jendaurrean jartzeko epearen barruan, Arabako Foru Aldundiaren Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuari eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzari txostena egiteko eskatzea.

Hirugarrena. Cerrajería Jauregiko eraikin isolatuen eta osagarrien aurri-deklarazioaren espedientearekin jarraitzea, eta espedienteari Euskal Kultura Ondarearen EAeko Zentroaren 2020ko maiatzaren 27ko txostena eranstea, Eusko Jaurlaritzak zehaztu duen bezala oinarritzko babeseko ondasun higiezin kalifikatuta ez daudela eta 6/2019 Legean aurreikusitako desafektazioa eta aurri-egoera bidezkoa ez dela ulertuta, nahiz eta ekonomia- eta hirigintza-aurri-egoera justifikatu den. Beraz, bidezko da legezko aurri-egoera deklaratzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 201. artikulua araber.

Eta txosten hori jabeari helaraztea, hamabost egun balioduneko epea emanez alegazioak egin edo egoki iriztitako agiriak aurkez ditzan legezko aurri-deklarazioaren espedientearen. Epe hori igaro eta alegaziorik aurkeztu ez bada, eraikuntza legezko aurri-egoeran dagoela deklaratzeko ebazpena emango da, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 201. artikulua araber. Euskal Autonomia Erkidegoan, aurri-deklarazioa egin arren ezin izango denez eraitsi harik eta udal katalogoan sartuta egon arte, horiek udal katalogotik kanpo uzteko espedientea ebatzi ondoren, eraisteko baimena eskatuko zaio Arabako Foru Aldundiari.

Laugarrena. Ebazpen hau Eusko Jaurlaritzan eta Arabako Foru Aldundian kultura-ondarearen arloko eskumena duten organoei eta jabeai jakinaraztea, Eusko Jaurlaritzaren 2020ko maiatzaren 27ko txostena azken biei erantsita.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Arespalditza, 2020ko ekainaren 26a

*Alkate-lehendakaria*  
**GENTZA ALAMILLO UDAETA**